



HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ERAKUNDE AUTONOMO, ZUZENBIDE PRIBATUKO ENTE PUBLIKO ETA SOZIJETATE PUBLIKOEN KONTUEN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA-2006.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Euskal Autonomia Erkidegoko Erakundearen Administrazioaren 2006ko ekitaldiaren fiskalizazioa mamitu du, zeinak Erakunde Autonomoak, Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoak eta EA Eren partaidetza % 50ekoa baino handiagoa duten Sozietate Publikoak besarkatzen baititu. Txostena HKEEren osoko kideen gehiengoak onetsi du.

Lanaren mamia izan da Osakidetza Erakundeak diru publikoen kudeaketan indarreko legedia zein mailatan bete duen egiaztatzeko azterketa mugatua egitea eta inbertsioak, ondasunak eta zerbitzuak eta langileria kontratatzean legezketasuna bete izanaren azterketa mugatua egitea enpresa erakunde publiko batean eta 10 enpresatan:

- Energiaren Euskal Energia (EEE)
- EJIIE- Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte, SA
- Euskal Telebista, S.A.
- Eusko Trenbideak, S.A.
- Eusko Trenbide Sarea
- Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Sozietatea, SA (SPRI, S.A.)
- Sprilur, S.A.
- VISESA

Epaitegiak txosteneko ondorioen atalean inbertsioak egin eta ondasun eta zerbitzuen erosketen espedienteetan batetik, eta langileen kontratazioen espedienteak aztertzean, bestetik, azaleratu diren akats nagusiak azaleratu ditu.

Sozietate publikoen eta enpresa erakundearen kasuan, Administrazio Publikoen Kontratuen Legeak agintzen dituen eskakizunak betetzeari dagokionez azaleratu diren hutsak ia gehien bat publizitate ezari dagozkio. Osakidetza Erakundearen azterketan jaso dira, berebat, Osakidetzaren artekaritza zerbitzuak jaulkitako txostenen ondorio nagusiak eta hemen kasuistika zabalagoa da, izan ere, Erakundeak legezketasuna betetzeko betekizun handiagoak baititu; honela, bada, DOUEn publizitaterik eza, esleipen hartzailearen eskusibotasuna justifikatze eza, edota esleipenean erabilitako



baloraketa irizpideen eta Pleguetan jasotakoen artean izandako aldeak, besteak beste, azaleratu dira.

Sozietate publikoek gauzatutako langileen kontratazioa aztertzean adierazi da, hautaketa prozesuetako batzuk ez direla indarreko legeriak nahitaezkozkat finkatzen duen publizitatea betez izapidetu. ETB, SAREN kasuan, aldi baterako langileen kontratazioa web orrian soilik argitaratzen denez gero, eta hautaketa prozeduren antolamendu eta sistematizaziorik gabe egiten denez gero, publizitate eta berdintasun printzipioak bete izana behar hainbat ez bermatzea eragiten du.

Osakidetzari dagokionez, langileen alorrean azaleratu diren akatsak honako hauek dira: Donostia Ospitaleko 20 langile lan kontratu finkoko kategoriara sartzeko legezko babesik eza, publizitate, merezimendu eta gaitasun printzipioak urratuz, gainera. Bestalde, 29 kasutan, maila jasoagoko egitekoak betetzeagatik osagarri pertsonala jasotzea behar hainbat justifikatuko duen dokumentaziorik ez dagoela azaleratu da.